

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

834

18/2023 DEKRETUA, otsailaren 7koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarrenenez aldatzen baita, batetik, Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen dituen Dekretua.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoak du gazte-politikaren arloan eskumen osoa.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 3.1.i-bis) artikulua ezartzen duenez, Lehendakariari dagozkio gazteriarren arloari buruzko eginkizunak.

Gazteriarren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 8.1 artikulua araber, Eusko Jaurlaritzari dagozkio legegintzako ekimena eta erregelamenduak emateko ahala, eta, 31.3 artikulua araber, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erregelamendu bidez ezarriko du zer baldintza bete behar dituzten prestakuntza-moduluak, espezialitateak eta bestelako prestakuntza-jarduerak ematen dituzten eskolek onetsiak izateko, gazteriarren arloan eskumena duen sailak proposatuta, betiere.

Bestalde, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c) 2 artikulua araber, lurralde historikoei dagokie gazteria-politikari buruzko erakunde komunenera legeria betearaztea beren lurraldean.

Era berean, martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 8.2 artikulua ezartzen duenez, foru-aldundiei dagokie gazteriarren arloko arauak betearaztea, legean bertan eta hura garatzeko araudian xedatutakoaren araber. Bestalde, legearen 10.d) artikulua ezartzen duenez, foru-administrazioei dagokie, beren lurralde-eremuaren barruan, betiere, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak izendapen ofizialez onartzea, bai eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko moduluak ere, eta lurraldez gaindiko esparrukoak ez diren diplomak ematea.

Martxoaren 10eko 2/2002 Legearen bigarren xedapen indargabetzaileak ezartzen duenez, lege horrek geroagoko erregelamendu-xedapenetara igortzen dituen gaietan, eta xedapen horiek ematen ez diren bitartean, legea indarrean jarri aurretik indarrean zeuden maila horretako arauak aplikatuko dira kasu bakoitzean, eta horien artean berariaz aipatzen da azaroaren 2ko 419/1994 Dekretua, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuena.

Azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren bidez arautzen dira, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua. Bestalde, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko urriaren 27ko Aginduaren bidez, aipatutako dekretu horren I. eta II. eranskinak eguneratu ziren.

Arestian aipatutako dekretuaren 9. artikulua adin-eskakizun batzuk jasotzen ditu haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako hezitzaileak trebatzeko eskoletan parte hartu ahal izateko, eta

eskakizun horiek eguneratu egin behar dira gaur egungo errealitatera; izan ere, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako prestakuntzan parte hartzeko eskabidea egiten duten gazteen adin-tartea aurreratu egin da azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuan finkatu denarekin alderatuta.

Adierazitako guztiagatik, dekretu honen helburua da haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako hezitzaileak trebatzeko prestakuntza-moduluetan parte hartzeko gutxieneko adina aldatzea.

Horrekin batera, arau honen bidez eguneratu egingo dira zenbait araudi-erreferentzia, eta hizkera inklusibora egokituko da azaroaren 2ko 419/1994 Dekretua; egokitzapen hori ez da beharrezkoa aipatutako aruaren euskarazko bertsioan, baina bai gaztelaniazkoan, gai horri dagokionez uniformetasuna eman behar baitzaio dekretuaren gaztelaniazko testu osoari. Hain zuzen ere, 2016an I. eta II. eranskinak aldatu ziren, hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako gomendioak betez, baina dekretuaren gaztelaniazko bertsioaren gainerako edukia ez ziren egokitu, eta 1994an emandako idazkeraren arabera formulatuta daude oraindik. Beraz, hizkera inklusiboarekin bat ez datozen esamolde batzuk daude testuan, eta beste batzuk, inklusiboak izan arren, ez dira egokiak estiloaren eta gramatikaren ikuspegitik.

Horrenbestez, Lehendakariak proposatuta, bat etorri Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko otsailaren 7an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatu egin da azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren gaztelaniazko bertsioaren izenburua. Dekretu horrek, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen du. Honela idatzita geratzen da:

«Decreto de reconocimiento oficial de las escuelas de formación de educadores y educadoras en el tiempo libre infantil y juvenil, y de los cursos de formación de monitores y monitoras y de directores y directoras de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil, así como el acceso a los mismos».

Bigarren artikulua.– Aldatu egin da azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren 3. artikuluko 1. paragrafoko hasierako tartekia. Dekretu horrek, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen du. Honela idatzita geratzen da:

«1.– Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak izendapen ofizialez onartuak izan daitezen eskabideak, prestakuntza-jarduera gehienbat zein lurralde historikotan burutuko den kontuan hartuta, bakoitzari dagokion foru-aldundiko gazteria-erakundean aurkeztuko dira, bai zuzenean, bai Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako bideetatik edozein erabiliaz eta ondoren aipatutako dokumentazioarekin batera:»

Hirugarren artikulua.– Aldatu egin da azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren 9. artikulua. Dekretu horrek, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen du. Honela idatzita geratzen da:

«1.– Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begiraleak prestatzeko ikastaroa osatzen duten prestakuntza-moduluetan parte hartu ahal izateko, interesdunek honako adin-baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Prestakuntza teorikoaren etapari dagozkion moduluetan sartzeko, interesdunek 17 urte beteta izan beharko dituzte, edo modulua hasten den urtearen barruan betetzekoak izan.

– Prestakuntza praktikoaren etapari dagozkion moduluan sartzeko, interesdunek 18 urte beteta izan beharko dituzte, edo modulua hasten den urtearen barruan betetzekoak izan.

Nolanahi ere, haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale-diploma ofiziala emango zaie prestakuntza-ikastaroari dagozkion modulu guztiak gainditzen dituzten pertsonen, baldin eta gutxienez 18 urte badituzte.

2.– Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretarako zuzendari izateko formakuntza-moduluetan parte hartu ahal izateko, kasuan kasu eskolak berak izan ditzakeen baldintza osagarriez gainera, honako betebeharrak errespetatu beharko dituzte interesdunek:

– 21 urte beteta izatea, edo matrikulazio urte barruan betetzekoak izatea.

– Ikastaro hasieran, haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-jardueretarako begirale izateko agiri ofizialaren jabe izatea.

– Bigarren Hezkuntza edo horren baliokide den beste mailaren bat gaindituta izatea edo, kanpotik etorri gero, jatorrizko estatuko hezkuntza sisteman horren pareko dena».

Laugarren artikulua.– Aldatu egin da azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren III. eranskina. Dekretu horrek, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen du. Honela idatzita geratzen da:

III. ERANSKINA

1.– Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko ikastaroaren hasiera ofizialerako eskatutako dokumentazioa:

A) Eskolak eman nahi dituen ikastaroetako bakoitzaren berri emateko jakinarazpena idatziz, ikastaroak banan-banan zein multzoka aipatuz. Era berean, kasu bakoitzean aukeratutako trebaketa-plana adieraziko da, eta eskabidea egin duen eskola legez ordezkatzeko gaitasuna duen pertsonak izenpetuko du. Eskolek elektronikoki izango dute harremana administrazioarekin, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin.

B) Trebaketari buruzko egitarau osoa:

1.– Ikastaro bakoitzeko pedagogia eta arduradun taldeak osatzen dituztenen zerrenda.

2.– Ikasturte edo ikastaro bakoitzean matrikulatutako ikasle guztien zerrenda osoa.

3.– Egutegia eta denbora banaketa, arloak, lekuak, egunak, ordutegiak eta irakasleak kontuan izanda.

2.– Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko ikastaroaren bukaera ofizialerako eskatutako dokumentazioa:

A) Ikastaro bukaerako txostena:

Egindako ikastaro bakoitzari buruzko ebaluaketa orokorra:

1.– Lekuak, egunak, irakasleak, gaiak eta orduak.

2023ko otsailaren 17a, ostirala

2.– Praktikaldiak egin diren lekuak edo plangintzak, eta banakako ebaluaketa-agiriak.

3.– Azken ebaluaketarako erabilitako irizpideen txosten zehatza, ikasle bakoitzak, irakatsitako edukiak zein mailatan bereganatu dituen eta zenbaterainoko parte hartzea izan duen ebaluatuz.

B) Ikastaroaren ebaluaketa agiria, bertan honako hauek zehaztuta:

1.– Gaitzat jotako ikasleak.

2.– Gai ez izateagatik baztertutako ikasleak.

3.– Ebaluatzeko dauden ikasleak».

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honen artikuluetan xedatutakoa gorabehera, azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren gaztelaniazko bertsioan Educadores/as, Monitores/as, Directores/as, Monitor/a eta Director/a esamoldeekin lotutako gainerako hitzen ordezkariak honako hauek jarriko dira, hurrenez hurren: Educadores y Educadoras; Monitores y Monitoras; Directores y Directoras; Monitor o Monitora, eta Director o Directora.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean sartu aurretik moduluren bat hasteko eskatutako dokumentazio guztia dagokion foru-aldundiko organo eskudunari bidali dioten ikastetxeek, azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutakoaren arabera, izena emandako ikasleen zerrenda aldatu ahal izango dute dekretu honetan xedatutakoari heltzeko, modulu hori hasita ez badago, betiere.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.